



MENDAROKO
UDALA

2024KO MAIATZAREN 28AN OSPATURIKO BATZAR OHIKOAREN AKTA

Bertaratutako Zinegotziak:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Enetz Ezenarro Arriola J. (EH BILDU)

ETORRITAKO ZINEGOTZIAK:

Borja Rodriguez Barreras J. (EH BILDU)

Sonia Garcia Raposo A. (EH BILDU)

Olatz Bizkarguenaga Iñarrairaegui A. (EH BILDU)

Dorleta Lazarobaster Arakistain A. (EH BILDU)

Nerea Isasi Bedayo A. (EAJ-PNV)

TELEMATIKOKI PARTE HARTU DUTE:

EZIN ETORRIA ADIERAZI ZUTEN:

Nuria Guerola Horrillo A. (EAJ-PNV)

Amaia Urrea Mardaraz A. (EAJ-PNV)

Iñaki Arregui Uria J. (EAJ-PNV)

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA:

Korporaziokoa den Nerea Etxarri Ubeda
Anderea.

Mendaron eta Udaletxeko Areto Nagusian, bi mila eta hogeitalaugarreneko maiatzaren 28an zazpiak zirela, Udalbatza bildu da ohiko Osoko Bilkura egiteko.

Mahaiburu Korporazioko Alkate Lehendakaria Enetz Ezenarro Arriola izan da.

Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarriak Erregulatzen duen 7/1985 Legearen 46/2-c artikulua agintzen duena kontutan hartuz, Alkateak, hasera ematen dio Udal Ohiko Osoko Bilkura honi, aurrez konprobatuz, Korporazioko kideen gutxiengo kopurua eta Alkatea eta Idazkaria bertan daudela.

Eguneko gai zerrenda:

1. AURREKO SESIOAREN AKTAREN BORRADOREA ONARTZEA, HALABADA (2024.02.27)
2. KREDITU TXERTAKETAREN BERRI EMATEA.
3. KREDITU GAIKUNTZA BIDEZKO AURREKONTU ALDAKETA ONARTZEA.
4. KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO AURREKONTU ALDAKETA ONARTZEA.
5. SORALUZE, ELGOIBAR, MUTRIKU, MENDARO, EIBAR ETA DEBAKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, BAZTERTZEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONENTZAKO TUTORETZAPEKO, SORALUZEN DAGOEN, ETXEBIZITZA ERABILTZEKO.
6. 2025EKO EGUTEGI OFIZIALEAN TOKIKO JAI EGUNA AITORTZEA.
7. ALKATETZAREN EBAZPENAK (35/2024-129/2024)



MENDAROKO
UDALA

LEHENENGO PUNTUA. AURREKO BATZARRAREN AKTAREN ZIRRIBORROA ONARTZEA, HALABADA.- Batzar honen deialdiari 2024.02.27 datako aurreko batzarreko aktaren zirriborroa lagundurik, Zinegotzi Jaun Andereei inolako behaketarik egin behar duten galdetzen zaie.

Bat bera ere ez denez aurkezten Udalbatzak ahobatez,

e r a b a k i t z e n d u

2024.02.27 datako Batzarraren Aktaren Zirriborroa onartu, eta honen arabera Aktara jasotzera jo.

BIGARREN PUNTUA. KREDITU TXERTAKETAREN BERRI EMATEA.

Maiatzak 5ean alkatetza dekretu bidez onartutako Kreditu txertaketaren berri ematen da.

HIRUGARREN PUNTUA. KREDITU GAIKUNTZA BIDEZKO AURREKONTU ALDAKETA ONARTZEA.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena eta ziurtagiria aztertu dira. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, 2024.05.21eko Antolakuntza eta Kontuen Batzorde Bereziak aldeko irizpenarekin.

Udalbatzak, ahobatez,

e r a b a k i t z e n d u

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
1 0240.620.01.337.10 2024	LOKALA EROSTEA	56.000,00
1 0311.609.01.336.00 2024	SANTA ANA ELIZAREN KONPONKETA	50.000,00
1 0321.227.07.150.00 2024	IKERKETAK ETA PROIEKTUAK	19.000,00



MENDAROKO
UDALA

GAITU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA	125.000,00
-----------------------------------	------------

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
5 (SARR ERAK)	ONDARE SARRERAK	125.000,00
	FINANTZAKETA GUZTIRA	125.000,00

Bigarrena.- Espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez jendaurrean jartzea, hamabost eguneko epean. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta Osoko Bilkurari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Espedientea behin betiko onartuzat joko da epe horretan erreklamaziorik aurkeztu ez bada; bestela, Osoko Bilkurak hilabeteko epea izango du ebazteko. Era berean, interesdunen eskura egongo da Udal honen egoitza elektronikoan.

LAUGARREN PUNTUA. KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO AURREKONTU ALDAKETA ONARTZEA.-

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu dugu.

Kreditu gehigarriak finantzatuko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, Idazkari kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu dugu.

Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, gaia aztertu ondoren, 2024.05.21eko Antolakuntza eta Kontuen Batzorde Bereziak aldeko irizpenarekin.

Udalbatzak, ahobatez,

erabakitzen du

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarri modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUEN ALDAKETA

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak



MENDAROKO
UDALA

1 2024	0230.471.01.241.00	HERRIKO EKON. SUSTATZEKO LAGUNTZAK	9.000,00	1.000,00	10.000,00
1 2024	0100.622.01.929.01	UDAL BULEGOEN EGOKITZAPENA	8.000,00	3.500,00	11.500,00
1 2024	0320.601.01.151.00	HIRIGINTZAKO OBRA TXIKIAK	48.867,18	80.000,00	128.867,18
1 2024	0230.226.01.430.00	MERKATARITZA SUSPERTZEKO EKINTZAK.	6.000,00	2.000,00	8.000,00
1 2024	0230.226.06.330.02	GAZTERIA	7.000,00	12.000,00	19.000,00
1 2024	0230.226.06.336.00	ONDARE ETA TURISMOKO EKINTZAK + ESPELEOL	5.000,00	10.000,00	15.000,00
1 2024	0231.226.06.338.00	GIZA-KULT.IHARD:SANTANA JAIK	70.000,00	40.000,00	110.000,00
1 2024	0321.210.01.153.00	KALE AZPIEG.KONP.MANT.KONTS.	30.000,00	2.000,00	32.000,00
1 2024	0321.227.99.171.00	K.E.L.:LORATEGIEN MANTENIMENDUA	55.000,00	20.000,00	75.000,00
1 2024	0240.480.01.230.00	TRANSF.FAMIL:GIZA LARRIALDIETAKO LAGUNTZ	45.000,00	15.000,00	60.000,00
1 2024	0240.227.04.231.20	ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA. GAI DIRENAK	30.000,00	10.000,00	40.000,00
1 2024	0240.227.04.231.21	ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA. GAI EZ DIRENAK	110.000,00	30.000,00	140.000,00
1 2024	0230.226.06.330.03	UDALEKUAK	18.000,00	6.000,00	24.000,00
1 2024	0321.623.04.153.40	BRIGADAKO ERREMINTAK INBENTARIAGARRIAK	3.000,00	2.000,00	5.000,00
1 2024	0230.211.01.333.00	GIZA-KULTUR KONP.MANT.KONTSERBAZIOA	6.800,00	3.500,00	10.300,00
1 2024	0100.227.99.925.00	UDAL KOMUNIKAZIOA	20.000,00	8.000,00	28.000,00
1 2024	0233.623.02.323.00	IKASTOLAN INBERTSIOAK	1.000,00	9.000,00	10.000,00
GUZTIRA			472.667,18	254.000,00	726.667,18

FINANTZAKETA

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.01.000.00 2024	DIRUZAINZAKO GERAKINA, GTU.OROKORRAK	254.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			254.000,00

Bigarrena.- Espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez jendaurrean jartzea, hamabost eguneko epean. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta Osoko Bilkurari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Espedientea behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamaziorik aurkeztu ez bada; bestela, Osoko Bilkurak



MENDAROKO
UDALA

hilabeteko epea izango du ebazteko. Era berean, interesdunen eskura egongo da Udal honen egoitza elektronikoan.

BOSGARREN PUNTUA. SORALUZE, ELGOIBAR, MUTRIKU, MENDARO, EIBAR ETA DEBAKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, BAZTERTZEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONENTZAKO TUTORETZAPEKO, SORALUZEN DAGOEN, ETXEBIZITZA ERABILTZEKO.-

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak (LSS) Euskadiko Herri Administrazioei ezar dakizkiekeen eskumenen araubidea ezartzen duela.

LSSren 39. artikulua arabera, lurralde historikoen Foru Aldundiei eta Udalei dagokiela Gizarte Zerbitzuei buruzko araudiak exekututzea, legean eta hori garatzen duen araudian xedatutakoaren arabera.

LSSren 42. artikulua, bestek beste, ondorengo funtzioak esleitzen dizkiela udalerriei:

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuak, bakoitzaren lurralde barrutian udalerrien eskumenekoak direnak, planifikatzea; Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan, Foru Aldundi bakoitzaren plangintzan, eta hala badagokio, autonomia eta lurralde barrutiko plan sektorialetan eta plan berezietan ezarritakoaren arabera.

-Udallerri bakoitzaren barrutian, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoan jasotako lehen arretako gizarte zerbitzuak, arestian aipatutako Legearen 22. artikulua 1. atalean arautzen direnak, hornitzea; telelaguntza zerbitzua izan ezik. Izan ere, zerbitzu horren eskumena Eusko Jaurlaritzaren eskuetan dago.

Arestiko 12/2008 Legearen 22. artikulua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen katalogoa arautzen duenak, udalerrien eskumenekoak diren lehen arretako Gizarte Zerbitzuen baitan sartzen dituela alojamendu zerbitzuak, eta bestek beste, ondorengoak bazterkeria egoeran dauden pertsonak artatzeko etxebizitza

Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren bidez Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemaren eta Gizarte Zerbitzuen zorroa onartzen dela. Horien helburuak dira, alde batetik, LSSn aldarrikatutako eskubide subjektiboa edukiz hornitzea eta mugatzea, eta bestetik, herri administrazioek arestiko zorro horretan jasotako prestazioak eta zerbitzuak hornitzeko duten betebeharra mugatzea.

Soraluze, Elgoibar, Mutriku, Mendaro, Eibar eta Debako udalek Debabarreneko Gizarte Zerbitzuen eremua osatzen dutela, Gizarte Zerbitzuen mapan.

Soraluzeko Udalak etxebizitza bat jarri zuela, hain zuzen, Soraluzeko Frontoi kalean dagoena, Debabarreneko Gizarte Zerbitzuen eremuaren esku, gizarte larrialdietako egoera kartatzeko.



MENDAROKO
UDALA

2019ko uztailaren 18an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko onartu zen bazterketa-arriskuan dauden pertsonak artatzeko etxebizitza arautzen duen Erregelamendua.

Kontuan izan behar da, Debarrenen Gizarte Zerbitzuen eremuko udalerriek prestutasuna adierazi dutela baliabideak elkarlanean kudeatzeko eta erabiltzeko.

Horren haritik, kontuan izan behar da araudiak Hitzarmenen arloan egin duen erregulazioa: hain zuzen, kontuan izan behar dira, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 100. artikulua, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren bateko 39/2015 Legearen 86. artikulua eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47-53 artikulua.

Hitzarmena sinatzen duten Udalen Gizarte Zerbitzuek interesgarritzat jo dute etxebizitza hori kudeatzeko eta erabiltzeko baldintzak protokolizatzea; horrexegatik, bidezkoz jotzen dute lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea, beraien arteko harremanak arautzeko, honako baldintza hauen arabera.

Udalbatzak, ahobatez,

e r a b a k i t z e n d u

Lehenengoa.- Soraluze, Elgoibar, Mutriku, Mendaro, Eibar eta Debako udalen arteko lankidetzaren hitzarmena, baztertzeko arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko, Soraluzen dagoen, etxebizitza erabiltzeko.

Bigarrena.- Alkate jaunari eskumena ematea hitzarmena sinatu dezan, zeina administrazio-agiri baten bidez formalizatuko baita.

Hirugarrena.- Akordio hau Mendaroko Udaleko Kontu-hartzaitza Sailari jakinaraztea, legez ezarrita dagoen eran; eta, halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki taulan eta Udalaren gardentasun Atarian argitaratzea.

SEIGARREN PUNTUA. 2025EKO EGUTEGI OFIZIALEAN TOKIKO JAI EGUNA AITORTZEA.

49/2024 DEKRETUA, apirilaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2025. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duena

Aipatu Dekretuak xedatzen duenez, bi mila eta hogeita bosgarren urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan jaieguntzat hartuko dira lan ondorioetarako –ordaindu egingo dira eta ez dira berreskuratu beharko– urteko igande guztiak eta jarraian aipatzen diren jaiegunak:

Urtarrilaren 1a, Urteberri eguna.

Urtarrilaren 6a, Jaunaren epifania.

Apirilaren 17a, Ostegun Santua.



MENDAROKO
UDALA

Apirilaren 18a, Ostiral Santua.
Apirilaren 21a, Pazko Astelehena.
Maiatzaren 1a, Langileen Eguna.
Uztailaren 25a, Santiago Apostoluaren Eguna.
Abuztuaren 15a, Ama Birjinaren Jasokundea.
Azaroaren 1a, Santu Guztien Eguna.
Abenduaren 6a, Konstituzio Eguna.
Abenduaren 8a, Ama Birjina Sortzez Garbiaren Eguna.
Abenduaren 25a, Eguberri eguna.

Era berean, lan ondorioetarako, jaiegun izango dira –hau da, ordaindu egingo dira eta ez dira berreskuratu beharko–, bi mila eta hogeita bosgarren urtean, tokiko jaiegun izaera izango duten bi egun. Laneko eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkariek zehaztuko dituzte egun horiek, udaletako osoko bilkurek proposatuta. Lurralde historiko bakoitzeko gainerako udalerriekin batera edo aparte hartu ahalko dira egun horiek.

Kontutan izanik, herrian ohiko tokiko jai eguna, Santa Ana eguna, uztailaren 26a larunbata dela, 2025.urterako Trinitate Txiki, ekainaren 16an ospatzea, Udalbatzari proposatzen zaio ondorengo erabaki-proposamena.

Udalbatzak, ahobatez,

e r a b a k i t z e n d u

LEHENENGOA.- Eusko Jaurlaritzako, Lan eta Enplegu Sailari proposatzea, Mendaroko Tokiko Jaieguna 2025 urtean, Trinitate Txiki, ekainak 16a izatea.

BIGARRENA.- Erabaki hau, Eusko Jaurlaritzara (Gipuzkoako lurralde Ordezkaritza), Lan eta Enplegu Sailera, bidaliko da.

HIRUGARRENA.- Irizpide moduan, Santa Ana eguna asteburuan denean, hemendik Aurrera Trinitate Txiki eguna izango da Udalerriko jai eguna.

ZAZPIGARREN PUNTUA. ALKATETZAREN EBAZPENAK.- 2568/1986 Dekretu Errealeko 42 artikulua araberak, azkeneko udalbatzatik gaur egunerarte Alkatetza honek emandako Ebazpenen berri ematen da: 35/2024 zbketik 129/2024 zbkira.

35/2024 zkia: EELZ urtarrila 2024, 16 erabiltzaileen aportazioa: 1.362,36 €.

36/2024 zkia: 2024ko Bonoek oinarriak eta lehenengo deialdia



MENDAROKO
UDALA

37/2024 zkia: 2023KRRE001 birjarpen helegitearen ebazpena.

38/2024 zkia: Teilatuko erretena ordezkatzeko obra baimena Andoneikua 48an.

39/2024 zkia: Kilimon hiribidea 15ean TEILATUAN KONPONKETAK EGITEKO BAIMENA.

40/2024 zkia: Adjudikatzea GUREAK MARKETING S.L.U enpresari, "Foru Kontratazioen Zentralaren bidez posta zerbitzua kontratatzeako esparru akordioa" (1. sorta: posta arrunta).

41/2024 zkia: Adjudikatzea SOCIEDAD ESTATAL DE CORREOS Y TELÉGRAFOS, S.A. S.M.E. enpresari, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatzeako esparru akordioa" (2. sorta: ziurtagiriak, jakinarazpenak eta zerbitzu bereziak eta 3. sorta: ordainketa bitartekoak kudeatzea eta dokumentazio digitala bidaltzea).

42/2024 zkia: E.E.L. zerbitzua onartzen P.M.A. jaunari.

43/2024 zkia: 0457MFC matrikuladun ibilgailuaren T.M.I.U.Z. salbuespena

44/2024 zkia: Lasalde eder baserriko obrak klandestinoak deklaratzeko

45/2024 zkia: D. R.S.-i, V.R.S.en hilerrien 14.ordainagiriaren ordainketa 3 hilabetez atzeratzearen onarpena, 692 €.

46/2024 zkia: TEILATUKO ERRETENA ETA ZORROTENAK ALDATZEKO BAIMENA Andoneikua Etorbidea 26an.

47/2024 zkia: TEILATUKO ERRETENA ETA ZORROTENAK ALDATZEKO BAIMENA Andoneikua Etorbidea 28an.

48/2024 zkia: Trinitate kaleko 2. zenbakiko beheko solairuan dagoen hormaren gainean burdin hesi bat jartzeko obra-lizentzia ukatzea

49/2024 zkia: Otsaileko fakturen erlazioa. 101 faktura, 140.608,11 €.

50/2024 zkia: Otsaileko fakturen erlazioa 2023 ekitaldiari dagozkionak. 20 faktura, 6.485,97 €

51/2024 zkia: 2024ko Aingeru Guardako jaiak antolaketarako dirulaguntza

52/2024 zkia: A.G.G.-en izenean dagoen Udalbide Publikoaren Okupazioari buruzko ordainagiriaren baliogabetzearen onarpena. 2024ko 3.ordainagiria. 199,20 €.

53/2024 zkia: 2024ko ibilgailuen behin-betiko onespina. 1281 ibilgailu, 146.101,59 €.

54/2024 zkia: TEILATUKO ERRETENA ETA ZORROTENAK ALDATZEKO BAIMENA Andoneikua Etorbidea 16an.

55/2024 zkia: Hilerrien inguruko 2024ko zergen 1. likidazioa, 3 ordainagiri, 1.656 €.

56/2024 zkia: Mendaroko Udaletxearen izenean dauden ibilgailuen zergen inguruko 170 ordainagiria aldatu, salbuetsita dagoelako eta 171 ordainagiria baliogabetu, froga bat egiteko sortu zelako. Eta J.L.F.V.-en izenean behin-betiko erroldan ordainagiria ez agertzea, borondatezko epea baino lehenago ordaindu zuelarik. Guztira 432,82 €.

57/2024 zkia: Familia ugariagatik 2024ko OHZ hirilurraren hobaria

58/2024 zkia: Instalazio fotovoltaikoagatik 2024tik 2028ra OHZ hirilurraren hobaria



MENDAROKO
UDALA

- 59/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: M.G.L. Zenbatekoa:1.031,46€
- 60/2024 zkia:** 2024.01 zaborbilketaren behin-betiko onespena. 970 ordainagiri. 134.277,50 €.
- 61/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: B.H.MA. Zenbatekoa: 1.148,52€
- 62/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: E.C.ML Zenbatekoa: 569,25€
- 63/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: G.B.ZE. Zenbatekoa: 674,31€
- 64/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: H.B.S Zenbatekoa: 808,00€
- 65/2024 zkia:** EELZ otsaila 2024. 17 erabiltzaileen aportazioa: 991,16 €.
- 66/2024 zkia:** Praktiketako funtzionarioak eta probaldian dauden lan-kontratuko langileak izendatzea
- 67/2024 zkia:** Bigarren aldiz baimentzea eta urte batez luzatzea, Mendaroko Udaleku irekien prestakuntza, antolakuntza eta kudeaketa eta zaintza zerbitzu puntualak zerbitzuen kontratua. ZIENTZIKASI, S. COOP.ri
- 68/2024 zkia:** 2023ko likidazioa onartzea
- 69/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: T.M.V Zenbatekoa: 233,63€
- 70/2024 zkia:** ERRETEILA EGITEKO LIZENTZIA ESKAERA, PLAZA AUZOA 16, ERREBIDO BASERRIA
- 71/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: H.H.X Zenbatekoa: 1.053,75 €
- 72/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: C.F.EK Zenbatekoa: 831,06 €
- 73/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: D.C.T. Zenbatekoa: 1117,71€
- 74/2024 zkia:** M.F.S.S.-ren 2024ko ibilgailuen inguruko 1081 ordainagiriaren anulazioa, ibilgailua 2023/11/16tik behin-betiko bajaran egoteagatik. Zenbatekoa: 83,74 €.
- 75/2024 zkia:** Udaleko zerbitzu anitzetako laguntzaile lanposturako proposatutako kideen artean dagokion hautagaiari dei egitea, eta lanpostu hutsa betetzeko kontratazioa egitea. A.A.E. ..3315...
- 76/2024 zkia:** O.A.A.-ri plataforma era egokian itzultzeagatik 9.000 €-ko fidantza itzulketa.
- 77/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: F.M.A . Zenbatekoa: 906,48 €
- 78/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: G.M.N . Zenbatekoa: 122,40 €
- 79/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: S.N . Zenbatekoa: 1156,38 €
- 80/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: A.J.A . Zenbatekoa: 408,62 €
- 81/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: G.G.B . Zenbatekoa: 520,00 €
- 82/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: A.Z.A . Zenbatekoa: 121,23 €
- 83/2024 zkia:** CREATECH MEDICAL, S.L.ri (IFK: B-20896007) 1. okupazioko lizentzia ematea, Mendaroko Kurutz Gain industrialdeko 4. zenbakian dagoen pabiloiaren barrualdea eraberritzeko obrak egiteagatik.
- 84/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: Z.M.G . Zenbatekoa: 1.192,33 €
- 85/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: Z.G.S . Zenbatekoa: 999,00 €



MENDAROKO
UDALA

- 86/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: M.M.M . Zenbatekoa: 1.071,23 €
- 87/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: C.F.E . Zenbatekoa: 764,73 €
- 88/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp.: G.C.S . Zenbatekoa: 126,51 €
- 89/2024 zkia:** Mendaroko Adinekoentzako udal ostatu zerbitzua plaza onartzea A.A.JM. jaunari
- 90/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 1. Hiru hila. Esp B.B.S . Zenbatekoa: 181,39 €
- 91/2024 zkia:** Aingeru Guardako 2024ko dirulaguntzaren likidazioaren onarpena.
- 92/2024 zkia:** Familia ugariagatik 2024ko OHZ hirilurraren hobaria, J.L.E..
- 93/2024 zkia:** E.E.L. zerbitzua onartzen, E.G.B. andreari.
- 94/2024 zkia:** Fakturen 4.erlazioa. 115 faktura, 146.654,12 €.
- 95/2024 zkia:** I.I.-ri OHZ landalurrean salbuespena poligono 10 partzela 002(D) eta poligono 11 partzela 001(B).
- 96/2024 zkia:** Ofiziozko baja udal erroldan
- 97/2024 zkia:** Behar ez bezalako inskripzioagatik baja udal erroldan I.I.
- 98/2024 zkia:** Mendaroko Plaza auzoko 24. zenbakiko Agarre-Txiki baserriaren estalkia berritzeko obra-lizentzia
- 99/2024 zkia:** Alderdi Eder kaleko 3. zenbakiko eraikinean fatxadak konpontzeko obra-lizentzia
- 100/2024 zkia:** E.E.L. zerbitzua onartzen, A.A.A. andreari.
- 101/2024 zkia:** Teilatuko argizuloak aldatzeko baimena, Herriko Enparantza, 2-4-6.
- 102/2024 zkia:** E.E.L. zerbitzua onartzen, M.A.G. andreari.
- 103/2024 ZKIA:** Teilatuko erretena eta zorrotanak aldatzeko baimena, Andoneikua Etorbidea, 17.
- 104/2024 zkia:** EELZ martxo 2024, 17 erabiltzaileen aportazioa: 949 €.
- 105/2024 zkia:** Bigarren aldiz baimentzea eta urte batez luzatzea, MENDAROKO LANDAGUNE BALIOANIZTUNAREN (EGUNEKO ZENTROA ETA TUTORETZAPEKO 3 APARTAMENTU) ERABILERA ETA KUDEAKETA zerbitzuaren kontratua ZUREKIN, S.L.ri
- 106/2024 zkia:** M.I.B.-ren izenean dauden Plaza Zelaikuako IBI Iraunkorrak, 13 eta 14 zenbakidunak, padroitik bajan eman.
- 107/2024 zkia:** Andoneikua etorbideko 21. zenbakian horma eta lorategi-zola legeztatzeko espedientea.
- 108/2024 zkia:** Mendaroko Udaleku irekien prestakuntza, antolakuntza eta kudeaketa eta zaintza zerbitzu puntualak. Kontratu aldaketa.Interesdunari entzunaldia (Zientzikasi)
- 109/2024 zkia:** Mendaroko Azpilgoeta auzoko SAHATSUKO landa-bideen erabilera berezirako lizentzia ukatzea
- 110/2024 zkia:** Mendarozabal 3-00 Esk. eta Mendarozabal 3-02 Ezk. helbideei dagozkien Zaborrei buruzko zergak
- 111/2024 zkia:** Ofiziozko baja udal erroldan Azpilgoeta, 7-2. A



MENDAROKO
UDALA

112/2024 zkia: Lanbideko dirulaguntza eskaria Elgoibarrekin batera.

113/2024 zkia: Hirugarren aldiz baimentzea eta urte batez luzatzea, Udal lorategiak eta berdeguneak kontserbatzeko eta mantentzeko zerbitzuaren kontratua TXUKUN LORAZANTZA, S.L.

114/2024 zkia: Ibilgailuaren Salbuespena-I.Z.- E0629-BHN

115/2024 zkia: Ibilgailu zergaren itzulketa proportzionalari ezezkoa-Z.C.

116/2024 zkia: Ibilgailuaren Salbuespena-I.Z.- E-4912-BBF

117/2024 zkia: Etxebizitzan erreforma egiteko eta leihoak aldatzeko baimen eskaera, Azpilgoeta, 7-2.D

118/2024 zkia: Apirileko fakturak, 128 faktura, 145.203,59 €.

119/2024 zkia: Kreditu txertaketa

120/2024 zkia: Erreteila egiteko lizentzia, plaza auzoa 16, Errebido baserria. Titular aldaketa.

121/2024 zkia: Praktiketako funtzionarioa izendatzea A.U.A.

122/2024 zkia: Gizartekintzako dirulaguntzen deialdia.

123/2024 zkia: Bazterkeria egoerak saihesteko dirulaguntzak.

124/2024 zkia: E.E.L. zerbitzua onartzen, A.Z.A. espedientea

125/2024 zkia: E.E.L. zerbitzua onartzen, A.A.MK.. espedientea

126/2024 zkia: Etxez etxeko laguntza apirila 2024, 18 erabiltzaile aportazioa: 1.424,13€

127/2024 zkia: M.M.-ren ondarezko erreklazioaren hasiera.

128/2024 zkia: UKATZEA Zelaikua Plaza 10 behea (ezkerra), dagoen lokalaren erabilera etxebizitzara aldatzeko emakida, 2024.04.23ko txosten teknikoan adierazitako arrazoiengatik

129/2024 zkia: Trinitate Jai batzordeari dirulaguntza ematea 1.300,00€

ERREGU ETA GALDERAK.-

Aztertzeko gai gehiagorik ez daudenez, Alkate-Lehendakariak 19:30etan bilkura altxatzen du. Guzti honen Akta jasotzen delarik, nik Idazkari-Kontuhartzaile moduan, Ziurtatzen dut.

O. I.,
ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

